



www.begiko.com

© Testua: 2005, JASONE OSORO IGARTUA

© Argitalpen hau:

2018, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-24-7

Lege-gordailua: M-16315-2017

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2018ko urtarrila

Hamabostetik gora berrargitalpen Zubia argitaletxean

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagon

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Ane Barrenengoa eta Amaia Lasheras

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Jara

bikiak eta bikoteak

Jasone Osoro

Azaleko irudia: Alex Macho

begiko

Musuaren ostekoa

—Jara! Jara! Telefono dei bat duzu!

7

—Banoa!!!!

Larunbat goiza zen. Jara bere logelan zegoen, ohean etzanda musika entzuten. Amaren oihuek ametsetatik iratzarri zuten. Izan ere, azken boladan denbora gehiago ematen zuen ametsetan bitzita errealean baino.

—Bai?

—Jara? Urko naiz.

Jara lurrean eseri zen. Irribarrea ezin disimulaturik, amari keinu batez eskatu zion mesedez alde egiteko egongelatik. Amak ere irribarre egin zuen eta, atea itxiz, bakarrik utzi zuen alaba.

—Aupa, Urko.

—Ez zintudan esnatuko, ezta?

—Esnatu? Ez, ez. Nahiko goiz altxatzen naiz.

—Bai? Nik, aldiz, egun osoa emango nuke ohean!

[...]

—Zera, gaur arratsalderako ba al duzu planik?

—ahotsa dardarka zuen, urduri.

—Gaurko? Ihintzarekin geratu naiz, beti bezala.

—A, bale.

—Zergatik?

8 —Ez, agian bueltatxo bat ematera edo atera ahal ginela pentsatu dut —Urkok hitzordua eskaini zion.

—Egia esan, Ihintza Jazzekin elkartuko da gero. Nahi baduzu, zazpiak aldera edo gera gaitzke.

—Ongi, primeran. Anabasa tabernan? —ahotsa alai nabari zitzaion orain.

—Hantxe izango naiz.

—Gero arte, orduan.

—Agur, Urko.

Telefonoa eskegi zuenerako, ama egongelan zegoen.

—Amaitu al duzu?

—Ama!

—Zer?

—Ez al dizut esan bakarrik hitz egin nahi nuela?

—Baina ez al duzu amaitu? —jakin nahi izan zuen amak.

—Baina zuk ez zenekien!

—Jara, faborez.

—Bueno, bale...

—Erosketak egitera noa. Ba al zatoz nirekin?

—Ezin dut.

—Ezin duzula? —harrituta.

9

—Ez, zera, gauzak ditut egiteko.

Une horretan, ateko txirrinak jo zuen. Amak ireki zuen. Ihintza zen.

—Kaixo, Ihintza.

—Aupa, Jara etxean al dago?

—Bai, bere logelan.

Jara ispilu aurrean aurkitu zuen Ihintzak.

—Zertan zabilta?

—Urkok deitu dit.

—Badakit —Ihintza ohean eseri zen.

—Nola badakizula?

—Tira, banekien lehenago edo geroago deituko zuela.

—Bai, nik ere hala uste nuen baina...

—Eta? Geratu al zarete?

—Bai, zazpian Anabasan.

—Primeran! Neu ere bertan geratu naiz Jazze-kin.

Jarak ispiluari begira jarraitzen zuen. Belau-nikatu egin zen. Eta ispilutik begirada kendu gabe hitz egin zion Ihintzari.

—Zuk zer sentitu zenuen zure estreinako musuan?

10 —Munduko neskarik ederrena eta inportanteena nintzela!

—Eta bigarren aldiz musukatu zenuenean?

—Are ederragoa nintzela iruditu zitzaidan! Eta, gainera, musua askoz goxoagoa izan zen. Lan-duagoa.

—Agian hori izango da —onartu zuen Jarak.

—Zer? —Ihintzak ez zuen ezer ulertzen.

—Hara, Ihintza, gauza bat esan behar dizut. Zatoz.

Ihintza Jararen ondoan eseri zen. Biak ispi-luaren aurrean, parez pare.

—Zuk uste normala dela gustuko duzun muti-lari musu bat eman eta... eta...

—Eta? —Ihintza Jararen ondoan jarri zen. Biak ispiluari begira.

—Eta ez izatea imajinatu bezain goxoa?

—Zer? Ez al zaizu Urko gustatzen?

—Ai, ez dakit. Hara, urte osoa Urkoren atzetik eta berak musu ematea lortu dudanean...

—Uiuiui... —Ihintza ohera itzuli zen.

—Normala al da?

—Ba, ez dakit, neska.

—Urduri nago. Ez dakit gero Urkorekin egon nahi dudan.

—Ez al da beldurra izango? —galdetu zion Ihintzak.

—Beldurra? Zeren beldurra?

—Niri hasieran Jazzekin hori gertatu zitzaidan. Musu bat eman eta gero ez nekien berak gustuko izango ninduen. Akaso bera bestelako musuetara ohitua egongo zela pentsatzen nuen. Ez dakit, esperientzia gehiago zuten neskekin eta, badakizu.

—Izan daiteke nik ere hori sentitzea —onartu zuen Jarak.

—Zu lasai. Berehala jakingo duzu Urko gustatzen zaizun ala ez.

—Eta nola jakingo dut?

—Bigarren musua ematen dizun unean!

Jarak ispiluan ikusi zuen islatua bere irudia eta ez zitzaion gustatu bere keinua. Urkorekin mai-

temindua zegoela uste zuen. Baina bere begiek ez zuten halakorik esaten.

—Tira, pentsatu al duzu ze arropa jantzi?

—Ez —Jarak bizkarra eman zion ispiluari, Ihintzari begira.

—Eta zeren zain zaude? Ea, ireki armairua!

12 Ihintzak zabaldu zuen armairua eta barrutik hainbat kamiseta eta bakero atera zituen.

—Hauekin primeran egongo zara!

Jarak, lur gainean eserita, pentsakor jarraitu zuen Ihintzak ohea arropaz betetzen zuen bitartean.

Zerbitzari berria

Arratsaldeko seiak ziren Ihintza eta Jara Anabarsa iritsi zirenean.

—Zergatik etorri gara hain goiz? —Jara muturtuta zegoen Ihintzarekin—. Beti egiten dugu zuk nahi duzuna!

—Zaude isilik, neska! Sorpresatxo bat daukat zuretzat!

—Eta, gainera, bakero hauek txikiegi ditut! Zergatik egingo nizun kasu!

—Primeran geratzen zaizkizu!

—Primeran? Ezta saltxitxoia banintz ere! Eztanda egingo dudala iruditzen zait.

—Ai, neska, aspaldian edozerk egiten dizu traba: arropak, denborak, nik...

—Ez esan tontakeriarik.

—Bai, hobe dena ahaztea, bestela sorpresa gabe geratuko zara.

Ihintzak Jara eskutik hartu eta barrara eraman zuen. Taburete bana hartu eta bertan eseri ziren.

—Nik garagardo bat edango dut. Zuk zer nahi duzu?

—Ura.

—Ura? Jara larunbata da, ura edan behar al duzu?

14

—Baietz ba!

—Tira, eskatu zuk.

—Nik? Zergatik? —galdetu zuen Jarak, harri-tuta. —Sorpresa nahi al duzu?

Jarak ez zuen ezertxo ere ulertzen. Egia esan, azken boladan bere laguna nahiko arraroa zegoen. Edo, agian, Ihintzak esan bezala, bera zegoen egun osoa pipertuta. Alde batetik arrazoia zeukan. Urkoren gaiak erabat aztoratzen zuen. Ez zion atsedunik uzten. Ez zekien zer nahi zuen, zer sentitzen zuen. Eta ezertxo ez sentitzeak ere beldurra ematen zion. Nola esango zion Urkori ez zuela gustuko?

—Aizu! Aizu!

Zerbitzaria bizkarra ematen ari zen eta ez zituen Jararen oihuak entzuten, antza.

—Nor da kamarero gor hori?

Ihintzak sorbaldak altxatu zituen, baina begietan nabaritu zitzaion irribarrea.

—Aizu! Txist!

Zerbitzaria biratu eta Jararengana hurreratu zen.

—Txist? Barkatu baina ni ez naiz txakur bat.

Jara aho zabalik geratu zen. Inoiz ikusitako mutilik ederrena parez pare zeukan. Sorbalda gainera erortzen zitzaion ile horia, mototsean bilduta, begi berde erraldoiak eta ezpain haragitsuak. Jara mutu geratu zen ikusitakoa ikusita.

—Zer? Orain mutu geratu behar al duzu?

Baina Jarak ez zekien zer esan. Ahoa zabaldu eta totelka hasiko zela pentsatzen zuen. Irribarre txiki eta urduriak soilik ateratzen zitzaizkion. Ihintzak, aldamenean, ezin zion barreari eutsi eta berak hartu zuen hitza.

—Zera, garagardo bat eta botila bat ur —eskatu zuen Ihintzak.

—Berehala!

Zerbitzariak alde egin zuenean ere mutu jarraitu zuen Jarak.

—Zer, gustatu al zaizu nire sorpresa? —jakin nahi izan zuen Ihintzak.

—Baina, baina... Nor da mutil puska hori? Eta ni Brad Pitt bezalakoak zinean bakarrik existitzen zirela sinestuta!

—Familiarekin iritsi berri da herrira eta atzo hasi omen zen lanean.

—Ze tuntuna naizen!

—Zergatik?

16

—Baina ez al zara ohartu? Ume mokoak banintz bezala jokatu dut! Totalka hasi naiz!

Ihintza barrez lehertu zen. Une horretan hurreratu zitzaien zerbitzaria garagardoa eta ura eskuetan.

—Honatx, polittok.

Jarak eman zion dirua eta ustekabeen zerbitzari berriaren eskua igurtzi zuen.

—Hemengoak al zarete? —galdetu zuen mutilak.

—Bai, ezta, Jara?

Jarak buruarekin baietz esan zuen. Hitzik, bat bera ere ez.

—Jara? Jara deitzen al zara?

Jarak berriz buruarekin baietz.

—Gaur buruko minarekin esnatu da eta horregatik dago hain motel —azaldu zuen Ihintzak.

—Ba, neu iritsi berria naiz. Xabat dut izena.

—Urte askotarako, Xabat —Ihintzak musu bi eman zizkion.

—Tira, aurrerantzean sarritan ikusiko gara, beraz.

Barraren beste aldetik norbaitek deitu zuen Xabat.

—Hurren arte, Jara —eta begi-keinua eginaz alde egin zuen.

17

Jara taburetetik jaitsi zen.

—Nora zoaz? —galdetu zion Ihintzak.

—Ez al zara konturatu? Lotsagarri geratu naiz!

—Lotsagarri? Hitzik ez duzulako esan?

—Zu bai, ausarta! Musu bana masailean! Ia baita ahoan ere!

—Aizu, Jara, ez zaitez jeloskor jarri.

—Jeloskor ni?

—Bai, zu!

—Ez al duzu nahikoa Jazzekin?

—Eta zu ez al zaude Urkorekin?

Jara isildu egin zen.

—Gainera... —jarraitu zuen Ihintzak—, Xabatek zuri egin dizu begi-keinua.

Jarak irribarre egin zuen.

—Egia —pentsakor geratu zen—. Xabat. Izen polita du, ezta?

—Kaixo, Jara.

Ametsetatik esnatu zuen Urkok Jara.

—E? Aupa, Urko!

Urkok musua eman nahi izan zion ezpainetan, baina Jarak masaila jarri zuen.

18 —Tira, bikote, Jazz hor dago. Bakarrik utziko zaituztet. Ondo pasa!

Ihintzak alde egin zuen eta Jara Urkorekin geratu zen. Bakarrik. Bikote bat izango balira bezala. Tarteka barrarantz begiratzen zuen, ea Xabat kuxkuxean zuten jakin nahirik. Ez zuen Xabatek bera eta Urko bikote zirela pentsatzerik nahi.

—Joango al gara beste nonbaitera? —galdetu zuen Jarak.

—Oraintxe iritsi naiz eta!

—Bai, baina hemen jende larregi dago. Nahia-go nuke zurekin lasai hitz egin.

Jara eta Urko Anabasatik atera ziren. Atea itxi aurretik, Jarak barrarantz begiratu zuen. Xabat neska batekin zegoen berbetan, bere irribarre zoragarria ahoan. Halako batean, burua altxatu eta begi-keinuaz agurtu zuen Jara.

—Nora goaz? —galderak iratzarri zuen Jara.

—Ba ez dakit.

—Tren geltoki zaharrera joan gaitezke.

—Abandonatua dagoena?

—Ez al zara inoiz izan bertan? Ikaragarri polita da. Tren zahar baten bagoia ere han dago oraindik!

—Benetan?

—Goazen, neuk erakutsiko dizut.

Urkok eskutik hartu zuen Jara eta berak ez zuen askatu. Egia esan, Urko oso mutil jatorra zen, eta bere estreinako musua eta bere lehen amodioa eta... Ze demonio, ez al zion aukera bat eman behar!

Geltoki zaharrak hamar urte zeramatzan itxita. Jarak, txikia zela, aitarekin trenez egindako bidaia gogoratu zuen. Lan kontuak zirela eta, amak egun batzuk herritik kanpo igaro behar izan zituen eta asteburu pasa joan ziren. Trenez. Jarak bazekien hura ez zela aitarekin bidaiatu zuen lehen aldia, eta gero ere izan ziren irteera gehiago, baina hura berezia izan zen. Itzultzerakoan, ama herri hartan utzita, bagoiko iluntasunean Jarak aita negarrez sumatu zuen. Eta inpresioa egin

zion. Ez zuelako inoiz pentsatu gurasoek negar egiten dutenik. Ez zekielako malko haien zergatia zein zen. Aita ere ahula zela jakin zuelako. Eta or-dura arte sentitu zuen babesba birrindu egin zelako nolabait.

—Negarrez zaude, aitatxo?

Aitak malkoa disimuluan lehortu zuen.

20

—Ez, laztana. Zerbait sartu zait begian, betile bat edo, lasai.

—Nahi al duzu zapi batez ateratzea amatxok niri egiten didan bezala?

Aitak irribarre egin zuen.

—Lixto, atera zait.

Eta jarraian Jara besarkatu zuen. Sekula aita-rengandik jasotako besarkadarik potoloena izan zen. Estuena. Politena. Eta itzulera bidaia kantuan egin zuten, tunelean sartzen ziren bakoitzean indioek bezala Ao, ao, ao, ao egiten, jolasean.

—Sartuko al gara bagoira? —proposatu zuen Urkok.

—Baina ez al dago debekatua?

—Inork ez gaitu ikusiko!

—Ziur zaude?

—Bai, neska, abentura pixka bat!

Konturatu zenerako, bagoi barruan zegoen Jara. Eserlekuak egurrezkoak ziren eta gehienak puskatuta egon arren oraindik ere mantentzen zuten garai bateko trenen xarma berezia.

—Zatoz!

Jara Urkoren ondoan eseri zen.

—Ahal izanez gero, nora bidaiatuko zenuke?
—galdetu zion Urkok.

—Bufa! Zeinen galdera zaila! Ez naiz inoiz herri-ritik atera, beraz...

—Ni egunen batean Afrikara joango naiz —kontatu zion Urkok.

—Afrikara? Hain urrun?

—Bai. Lehoiak ikusi nahi ditut, eta jirafak, elefanteak...

—Horiek guztiak zoologikoan ere badituzu!
—esan zuen txantxetan Jarak.

—Ni, ahal banu, abenturazalea izango nintzateke. Bizitza osoa bidaiatzen emango nuke, herriak eta herritarrak ezagutzen.

—Hona itzuli gabe?

—Noizean behin, familia eta lagunak ikusteko.

Jara pentsakor geratu zen. Gustuko zuen Urko hain abenturazalea izatea. Baina pena eman zion

egunen batean herritik alde egingo zuela jakiteak. Une horretan Urkok masaila ferekatu zion Jarari eta jarraian musu bat eman zion. Ahoan. Musu goxoa. Epela. Umela. Jararen gustuko musua. Aurrenekoa baino askozaz ederragoa.